

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Atzerriko hogeit bat unibertsitariok ingelesezko hitzaldiak eman dizkiete DBH eta Batxilergoko ikasleei

Boluntarioek egindako jarduera horri esker, gazte nafarrek beste kultura batzuk ezagutu eta hizkuntzari buruz dituzten ezagutzak hobetu ditzakete

Miércoles, 07 de enero de 2015

Beste herrialde batzuetako hogeit bat unibertsitariok parte hartu dute ikasturte honetako lehen lauhilekoan Borders Down programan (Mugak kendu). Programa horren bidez, irakaskuntzako goi-mailako atzerriko ikasleak inplikatzeko dira DBH eta Batxilergoko ikasleei hizkuntzak erakusteko, horretarako ikastetxeetan hitzaldiak emanez.



Europako Foroko ikasle batek Paz de Ziganda ikastolan emandako hitzaldia.

Aldi horretan, dozena bat herrialdeetako hogeit ikaslek guztira hogeita lau hitzaldi eman dituzte hamar zentro publiko eta itunpekoetan; ikasle horiek beren borondatez egin dute bat proiektuarekin.

Programa Hezkuntza Departamentuak sustatu du Nafarroako unibertsitate publiko eta pribatuekin nahiz Europako Foroko negozio-eskolarekin lankidetzan, eta ikasturte honetan hirugarren edizio betetzen du.

Ekimen honen bidez, programarekin bat egiten duten ikastetxeetan hitzaldiak ematen dira, eta bertan Foru Komunitateko goi-mailako ikasketak egiten dituzten beste herrialde batzuetako ikasleek, alde batetik, beren jatorrizko herrialdeetako kultur alderdi garrantzitsuen berri ematen dute, eta bestetik, Nafarroan zer esperientzia duten azaltzen dute, horretarako ikasleek ikasten duten atzerriko hizkuntza erabiliz, ingelesa normalean, baina baita frantsesa eta alemana ere.

Horrenbestez, beste kultura batzuk hobeto ezagut daitezke eta, aldi berean, beste hizkuntza baten ikasketan aurrera egin eta gazteen arteko boluntarioritza-balioa sustatzen da.

Zentroen araberrako datuak

Programan parte hartutako hogeit ikasleetatik, bederatzik Nafarroako Unibertsitate Publikoan, zortzik Nafarroako Unibertsitatean eta hiruk Europako Foroan ikasten dute.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko bederatzi ikasleek guztira hamahiru hitzaldi eman dituzte zortzi ikastetxetan; Nafarroako Unibertsitateko zortzi ikasleek zazpi eman dituzte bost ikastetxetan, eta Europako Foroko hirurek, beste lau hiru ikastetxetan.

Unibertsitateko ikasleak honako herrialde hauetakoak dira: Alemania, Australia, Kanada, Kolonbia, AEB, Filipinak, Moldavia, Nikaragua, Portugal, Suitza eta Turkia.

Bestalde, abendura arte parte hartutako ikastetxeak ondorengoak izan dira: Askatasuna BHI, Biurdana BHI, Ibaialde BHI, Julio Caro Baroja BHI, Plaza de la Cruz BHI, Santa Teresa ikastetxea, Miravalles-El Redín ikastetxea, Salestarren ikastetxea, Paz de Zizanda ikastola eta Monjardín Lizeoa.